

Ipuinetan oinarritzen den tailer berria hasi du Bakearen Museoak

Kultura

Ipuinak baliatuta, arazoak konpontzeko lehenengo irtenbidea ez dela bakarra irakatsi gura diete ikasleei.
o. cabello

Tailer berria hasi zuen atzo Gernika-Lumoko Bakearen Museoak: ipuinen tailerra. Eskola arteko Bakearen eguna aprobetxatuz, ikastetxeetatik museora joandako ikasleekin ipini zuten atzo martxan tailer berri hori. Hain zuzen, ipuinak baliatuta, gatazkak edota arazoak konpontzeko lehenengo irtenbidea ez dela bakarra izaten irakatsi gura diete gazteei.

"Horrela, ipuinak erabiliz, ustezko arazo edo gatazka horri biolentziarik gabeko irtenbidea bilatu behar diote parte-hartzaileek, zehaztu du Bakearen Museoko hezkuntza arduradun Idoia Orbek.

Hutsunea Lehen Hezkuntzan

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloi dago zuzenduta tailer berri hori. Orbek adierazitakoaren arabera, "orain arte izan ditugun tailerrak nagusiei zuzenduta daudela ohartu gara, eta hutsune bat ikusi genuen Lehen Hezkuntzako ikasleei zegokienez.

Tailer berri hori doakoa izango dela zehaztu dute.